Ijentea, 1 - Tel. 943481000 - 943481695 - Faxa 943481144 - www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

## BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA ESPARTXOKO ZUBIA ORDEZKATZEKO PLAN BEREZIARI AU “LO.05 TXOMIN ENEA”

2004.ko urrian Udal zerbitzu juridiko teknikoek Espartxoko Zubia Ordezkatzeko Plan Berezia deritzon dokumentua idazten dute.

Planaren helburua, azken aldi honetan onartutako planeamenduko espedienteekin bat eginez, Urumeako Ibarran uholdeak murriztea da. Horretarako, egindako ur azterlanen arabera, Espartxoko zubia ordezkatu behar da, besteak beste.

Gainera, gaur egungo zubia mantentzea “LO.05 Txomin Enea” eremuaren garapenarekin bateraezina da.

Zubiak Txomin Enea esparrua Lau Haizeta parkearekin eta Loiolako kuartelekin lotuko ditu. Zubi berriak 59,40 m inguruko luzera izango du, 42m eta 17,40 m-ko bi baotan banatuta, ezkerreko bazterrean kokatutako pilare bakar batekin.

Tokiko Gobernu batzordeak, 2016.ko urtarrilaren 19an honako akordio hau hartu zuen:

1.- Hasierako onarpena ematea  Espartxoko Zubia Ordezkatzeko Plan Bereziari.

2.- Hogei egunean jendaurrera aterata edukitzea espedientea eta etorriko den desjabetzapenari dagozkion jabe, ondasun eta eskubideak, jabeei notifikazio pertsonalak eginez.

Legeak agintzen dituen iragarkiak argitaratu eta proiektua jendaurrera aterata egon den denboran epe barruan honako alegazio hauek onartu dira dira:

*Tesorería General de la Seguridad Social.

*Añarbeko Urak

*Ana Rosa García Etxebeste.

*Miriam Verde Altafaj eta beste batzuk.

Laburbilduz, lau alegazioak desjabetzapen espedienteari eta obra proiektuari dagozkion gaiak ikutzen dituzte.

Idazkari Teknikoak aurkeztutako alegazioei buruzko

## APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL PARA LA SUSTITUCIÓN DEL PUENTE ESPARTXO AU “LO.05 TXOMIN ENEA”

Con fecha octubre de 2014 los servicios jurídico-técnicos municipales redactan el documento del Plan Especial para la sustitución del Puente Espartxo.

El objeto del Plan, de acuerdo con los últimos instrumentos de planeamiento aprobados, es reducir las inundaciones en la vega del Urumea a través de la sustitución de entre otros, el Puente Espartxo, de acuerdo con los estudios hidráulicos realizados.

Además, el mantenimiento del actual puente es incompatible con el desarrollo del ámbito “LO.05 Txomin Enea”.

El puente comunicará el ámbito de Txomin Enea con el Parque de Lauhaizeta y los Cuarteles de Loiola. Tendrá una longitud de aproximadamente 59,40 metros repartido en dos vanos de 42 m y 17,40 m, con una única pila situada en la margen izquierda.

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 19 de enero de 2016, adoptó el siguiente acuerdo:

1º.- Aprobar con carácter inicial el Plan Especial para la sustitución del Puente Espartxo.

2º.- Someter el expediente así como la relación de propietarios, bienes y derechos afectados por la futura expropiación al trámite de información pública durante el plazo de veinte días, con notificación personal a las personas propietarias.

Publicados los preceptivos anuncios, durante el plazo de información pública dentro del plazo legal se han admitido las siguientes alegaciones:

*Tesorería General de la Seguridad Social

*Aguas del Añarbe.

*Ana Rosa García Etxebeste.

*Miriam Verde Alatafaj y otros

En resumen, la cuatro alegaciones tratan cuestiones a resolver en el expediente expropiatorio y en el proyecto constructivo.

El Secretario Técnico redacta informe de

10740n XVI

Ijentea, 1 - Tel. 943481000 - 943481695 - Faxa 943481144 - www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

txostena idazten du, ezetsi behar direla ondorioztatuz, hain zuen ere, beste espediente batzuetan jorratuko diren gaiak azaltzen direlako. Txosten hau motibazio modura honako akordio honen jakinarazpenari erantsiko zaio.

contestación a las alegaciones, señalando precisamente que las mismas deben desestimarse ya que plantean cuestiones a resolver en otros expedientes. Este informe se adjuntará a modo de motivación junto a la notificación del presente acuerdo.

Bukatzeko, esan behar dugu, dokumentuaren atal batean erasandako ondasun eta eskubide batzuk aipatzen badira ere, erabaki hau ez dela erasandako ondasun eta eskubideen onarpena. Onarpen hori, gerora gauzatuko den espediente batean egingo du dagokion organoak, plan berezi honen estaldura juridikoa lortu eta gero. Jendaurrera jarriko da eta alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

Hay que señalar finalmente, aunque el documento tenga un apartado donde se enuncian unos bienes y derechos afectados, este acuerdo que se adopta no es una aprobación de bienes y derechos afectados como tal. Dicha aprobación de bienes y derechos afectados, una vez obtenida la cobertura jurídica por este Plan Especial, se producirá en un expediente posterior por el órgano que corresponda, y el mismo se someterá a información pública y contra el mismo se podrá alegar

Kostaldeko Zuzendaritzaren aldeko txostena dago ere bai.

Consta igualmente informe favorable de la Dirección de costas.

Aurrekoagatik guztiagatik, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko (7/1985eko apirilaren 2koa 123 i) artikuluarekin jasotakoarekin bat, Donostiako Udalbatzak

Visto cuanto antecede y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 i) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, el Pleno del Ayuntamiento San Sebastián

**E R A B A K I  D U**

**A C U E R D A**

1.- Behin betiko onarpena ematea Espartxoko Zubia Ordezkatzeko Plan Bereziari, aurkeztutako alegazioak bere osotasunean ezetsiz.

1º.- Aprobar con carácter definitivo el Plan Especial para la sustitución del Puente Espartxo desestimando íntegramente las alegaciones formuladas.

2.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89. artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartu eta Planaren Hirigintza Arauak argitaratzea.

2.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, proceder a la publicación de las Normas Urbanísticas del Plan.

Udalbatzarrak onar dezan proposatua, Donostian, 2016ko abuztuaren 12an.

Lo proponen para su adopción por el Pleno Municipal en San Sebastián a 12 de agosto de 2016

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU ETA EXEKUZIOKO ZERBITZU BURUA /
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN Y EJECUCIÓN

Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE

Sin. / Fdo.:P.A. Carlos Azcoaga Mendizabal

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO, ETXEBIZITZAKO ETA HIRI PROIEKTUETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
EL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO SOSTENIBLE, VIVIENDA Y PROYECTOS DE CIUDAD

Sin. / Fdo.: Enrique Ramos Vispo

10740n XVI